

CARMANY,

44 URTE

Santixauen bihotzean

«Carmany» bezala ezagutzen badugu ere, beraren izena Jesus Maria Zangitu Pascual da. 52 urte ditu. Eibarren jaioa da baina 7 urte zituela etorri zen Ermura. Jaiak direla eta, berarekin solasaldi bat izatea pentsatu genuen, baina ez zitzaigun lan erraza suertatu.

Azkenean, topo egin genuen eta zita egin. Pena merezi izan zuen. Beti bezala irrifarretsu, kontatzeko gauza asko dauzka kala garbi laga zigun. Eta baita kontatzeko modu egokia ezagutzen duela ere. Carmany-k euskara aberatsa eta jatorra dauka, askok guretzat nahiko genukeen. Honen ondo datorren elkarrizketan, gai nagusia herriko jaien inguruan izango da, hauei loturik egon da-ta Carmany betidanik. Baina bere bizitzak izan dituen pasadizo ez hain ezagunak ere azalduko dira.

G: Noiz hasi zinen herriko jaietan lan egiten? Zeintzu izan dira zuk betetako zereginak?

E: Ni anaia jaio zenean hasi nintzen, zortzi bat urterekin. Erraldoiak eroaten genituen ni eta Probalekuko beste lagun batzuk. Horren truke aiuntamentuak diru picka bat ematen zigun. Gero, Bernabe aiuntamentuan zegoenean, honek hainbat zeregin eman zizkidan: gazte batzuri buruhandi eta erraldoiak eroan eragin, haiei ordaindu, txapliuak bota, izkoekin batera eta bestera ibili, arduradun beza-

la... Harrezgero, urtero goizean goiz, zezenak ondo joan daitezten arduratzen naiz eta baita kanpotik etorritako txaranga eta fanfarreei lagundu ere. Jaixetako painuelkoak ere nik erosi eta nik saltzen ditut. Hasieran, txarangek atera zituzten, baina geroztik nere kontura daude.

G: Zuk inork baino hobeto ezagutzen dituzu Santixauak. Zer aldaketa ikusten duzu herriko jaixetan zure gazte denboratik gaur egunera? Zerbait aldatu da?

E: Pixkat bai. Nik uste dut gaur egun umeek bere jaiak dituztela, gazterixiak be bai, agureek ere badaukate euren jaia, baina nere edadekoak ez dugu ezebe. Lehen banda etortzen zen, paskailea egoten zen... Baina harrezgero, urtetan ez dago ezebe gure edadekoentzat. Ni hori askotan esanda nago, baina ez dute jaramonik egiten.

G: Honekin lotuta, zer alde ikusten duzu zeure garaiko gazteria eta gaur egungoaren artean? Diferente bizi dituzte jaiak gaurko gazteek?

E: Gu estuago egoten ginen gurasoekin. Gaur egun libartate gehiago dago. Guk jaia egunez egiten genuen, hamaikak edo hamabietan ohera. Orain, berriz, gaupasak egiten dituzte eta egunez ez da inobe kalean ibiltzen. Horrela, gure edakoentzat ez dago jairik. Nik nahiko nuke egunez jende gehiago ibiltzea, batez ere gazteak, dira-ta jaiak egiten dituztenak. Jaiak ez ditugu komisiokoak egiten, gazteriak baino.

G: Zer proposatuko zenuke jaiak egunez be indarra izan dezaten eta jende helduak parte hartzeko modua izan dezaten?

E: Santixau egunean herri kirolak izaten dira eta hori ondo dago. Horretaz aparte, pilota partidu batzuk egin daitezke, plazan baino ez bada. Gero, bandatxo bat ekarri, dantzaldi bat antolatu.... Gu hamabiak inguruan erretiratzen gara eta hortik aurrera nahikoa denbora dago gazteentzat.

G: Momentu batez, jaien kontua lagako dugu, beste arlota jarduteagatik be ezaguna zarelako. Ez da horrela?

E: Bai, txirindularia be izan nintzen eta hortik datorst, hain zuzen ere, «Carmany» izengoiti hori. 18 urte neuzkanean, bizikleta berria orduan erosita, apoba egin nuen ea zenbat belozidade hartzen nuen esprinean. Aitor Fuldainek



«Lanbretta» bat zeukan eta albora etorri zitzaidan. Orduko 70 kilometroko belozidadean ipini nintzen; baina, esprint horretan ia-ia napar bat harrapatu genuen eta horregaitik 30 duroko multa ipini zidaten. Orduan, ermutar talde bat — Luis Mari Herrero, Rafael Bustindui, Carmelo, Alberdi... — dirua batzen hasi zen eta 40 duro batu zituen. Horrekin multa ordaindu neban eta alkateari esan: «Ermuan txirindulari bakar bat egon eta lagundu beharrean, dirua kendu». Guzti horren ondorioz «Peña Carmany» sortu zen eta harrezgero Carmany deitzen naute.

G: Arbitroa be izan zinen, ezta?

E: Bai, nik primeran linier moduan jardun nuen. Urizar Azpitarten linier izan nintzen askotan. Eibarko Klub Deportivoan kurtsilo batzuk egin genituen, Osoro, Aja, ni neu... Berrueta plaentxiarrekin. Titulua atera eta preferenten arbitro eta primeran linier izatera heldu nintzen.

G: Garai hartako anekdotaren bat gogoratzen duzu?

E: Behin batean arbitro guztiek Karantzán ez genuela gehiago arbitratuko

TXALAPARTA

TABERNA

Ezagutzen gaituzu badakizu non gaituzun.





firmatu genuen, bertan arbitroak jotzen zituztelako.

Hurrengo astean neri tokatu zitzaidan bertara joatea. Nik, ez zela joan behar gogoratu eragin nien, baina presidenteak joateko esan zidan. Horrela egin nuen, baina partidua aurrera zihoan, hutsean parra markadorearekin eta gauzak estu zeuden. Amorrortu kanpokoan kapitaina zen eta hari esan nion: «ez baduzue galtzen, larri ibiliko gara». Azkenean, kasu egin zidaten, partidua kanpokoek galdu zuten eta ez zen ezebe pasatu.

G: Jaietara bueltatuta, ezaiguzu zer gauza aldatuko zenukeen gaur egungo, aurtengo programan.

E: Batetik, esan behar da presupto erdia jaiak hasi baino lehen janda egoten dela. Jaiak 24an hasten dira eta ordurako

presuptoaren erdia gastatuta egoten da Ateneoan antolatutako ekintzetan eta beste arloetako aktibitateetan. Nik uste dut diru hori kulturakoek jarri beharko luketela eta jaietako presuptoa jaietarako utzi.

Bestetik, zezen plaza portatila ipini nahi dute eta ni konforme nago bezerradaren bat egin nahi baldin badute, baina gazteen enbolauetan ibiltzerako orduan arrisku haundia dago. Zezenetatik ihes egitekosalto egin behar badute zezen plazak altura gehiegi dauka, 1.80 m. inguru. Gainera, 1.500 pertsonentzako kapazitatea dauka eta zezenak ikusten 3.000 inguru egoten da. Horregaitik, nik dinot plaza ondo dagoela, baina horrez gain enbolauendako, gazteendako, beste leku bat ipini behar dela, bailak jarri eta beti bezala prestatu.

G: Amaitu baino lehen, euskara bultzatzeko ideiak behar ditugula eta, zure eritzia eskatuko genizuke.

E: ikastolan eta euskaltegietan dabilen jendeak kalean be euskeran hitz egin behar du, hobeto ikasteko. Nik uste dut nere edadeko jende gehienak euskaraz egiten duela, gazte askok ere eta euskaltegietako neska-mutilak ere euskeraz entzuten ditut noizean behin. Hori da bidea, kalean hitz egin.

G: Bukatzeko, zein da jaiak ondo pasatzeko formula?

E: Gogoia eduki eta denak igualak gara kontutan hartu. Kanpokoak ere herrikoak bailiran hartu behar ditugu.

Elkarriketa amaitzerakoan, galdera bat gelditu zitzaidan buruan. Nola daiteke pertsona bat 44 urtez, urtero jaietan lan egiteko prest egotea? Nola daiteke denok ezer ez egiten eta ahal den hobetoen pasatzen ahalegiten garenean, batenbat buruhausteekin ibiltzea?

Agian, erantzuna Jesus Maria Zangitu, «Carmany»k eman zidan aitorten honen bitartez: «Neretzat jaiak dira jendea pozik badabil, nahiz eta beharrean ibili; baina jendea ondo ez badabil, ni be txarto».

HERRERO
Txarkuteria

Erdiko Kale 7

